

NAHIKO 2007-09 IKASLEEKIN SAIO BEREZIAK.

6.UD: ELKARBIZITZA. SAIO BEREZIA (2009ko Maiatza): JOLAS TAILERRA

ELKARBIZITZAREN TWISTERRA

Jolas-tailer honen bidez, Irakaslearen Gidan jasotako helburu eta eduki guztiarekin lotuz, 6. UD-ko "Elkarbizitzaren Oka Berdintasunez" jolasean landu dena birgogoratu, sakondu eta unitate guztiei bukaera emateko saioa izango da. Hau da, jolas tailerrean azalduko diren kontzeptu eta edukiak landutako unitate guztiarenak izango dira, betiere elkarbizitza ardatza hartuz:

- Zainketa.
- Aniztasuna.
- Berdintasuna.
- Lanbideak.
- Komunikabideak
- Elkarbizitza.

SAIOAREN ANTOLAKETA	
<p>Neska mutilak elkarrekin arituko dira saio berezi osoan.</p> <p>Espazio bakarra eskatu dugu eskoletan.</p>	
<p>Taldeka jolastuko dira: bi talde nagusi egongo dira, eta horietako bat familia-kate taldeka banatuta (eskutik lotuta). Gehienez 25 ikasleko ikastaldeak daude → 2 talde nagusi egongo dira, eta horietako batean, 4/5 kideko 3 familia. Ikastalde txikien kasuetan, talde nagusi bakar bat egongo da, 3/4 kideko familia-kateekin.</p> <p>Taldeak mistoak izango dira, beti ere, azken saioetan bezala, neska edo mutilaren bat bakarrik eta ahul utzi gabe.</p>	

HIRU ZATI		
Sarrera (denok elkarrekin): AURKEZPENA.	5 m.	10 m.
Elkarbizitza jolas-tailerra (familia-kate taldeka): TWISTERRA.	70 m.	90 m.
Bukaera (denok elkarrekin): ONDORIOAK.	15 m.	20 m.
Denetara	90 m.	120 m.

1. ZATIA (DENOK ELKARREKIN): AURKEZPENA (5-10 m.)

Hasiera emateko, saioa girotzeko eta ikasleak zentratzeko unea da (ikus gidoiaren hasiera: helburuak eta edukiak):

- **6.UD**an zer egin duten? Zein jolas? Koadernoak? Zein da gai nagusia? Zer egin duzue? Zer ikasi duzue?
- Zer da **elkarbizitza**? Eta **elkarbizitza berdintasunez**? Zergatik da garrantzitsua tratatu onetan eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza? Non eta noiz lantzen dugu elkarbizitza? Zeinekin/Zeintzuekin? Zuen artean (neska-mutilen artean) gelan, jolastokian, kalean, etxean... nolakoa da elkarbizitza? Berdintasunez ematen al da?
- **Jolas bat, saio bat** egingo dugu elkarbizitza hobeto ulertzeko, berdintasunarekin zer ikusirik duena hobeto ulertzeko. Saioa nolakoa izango den azalduko zaie, izango dituen zatiak, zein talde egingo ditugun, nolako dinamika erabiliko den, zein materialak erabiliko diren, etabar.
- Hasteko, **bi talde nagusi** egingo dira:
 - o **Horietako bat (A taldea), "Elkarbizitzaren Twisterraren" jolas-eremuaren hasieran** kokatuko da, mundu grisaren jolas-taulan, hain zuzen. Talde honetan, gehienez 3 azpitalde egongo dira, bakoitza 4/5 kidekoa, denak eskutik lotuta joango direlarik. Beraz, **3 familia-kate taldeak** izango dira lehenengo talde honetan.
 - o **Beste taldea (B taldea), jolas eremuaren kanpoaldean** kokatuko da. Talde honek, jolas eremuan dauden kideen frogak gainditu beharko ditu.
- **Espazioaren antolaketa:**
 - o Talde bat "Elkarbizitzaren Twisterraren" jolas-eremuan kokatuko da. Jolas eremu hau hasierako jolas-taulak (mundu grisa), bukaerako jolas-taulak (mundu berdea) eta bien artean kokatuko diren puntu berdeek (bakoitza unitate didaktiko baten zenbakiarekin) osatzen dute.
 - o Beste taldea, jolas eremuaren kanpoaldean kokatuko da (mundu grisa eta mundu berdea jolas-taulen arteko ibilbidetik at). Esan bezala, hauek frogak gainditu beharko dituzte.
 - o Talde txikien kasuetan, talde bakar bat egingo da. Talde honek frogak gainditu eta Twisterraren jolas-eremutik mugituko da.
 - o Jolasaren frogak egiteko material guztia albo batean (txoko, mahai, banku baten gainean...) jarriko da, jolas-eremuko kanpoaldean kokatzen direnetik gertu.

2. ZATIA (A TALDEA: FAMILIA-KATE TALDEKA; B TALDEA: BATERA): ELKARBIZITZAREN TWISTERRA (70-90 m.)



5. UD-KOMUNIKABIDEAK
prentsa tailerra
saio berezia



5. UD-KOMUNIKABIDEAK
prentsa tailerra
saio berezia



Helburua Mundu Grisetik → Mundu Berdera joatea izango da (hau da: mundu grisa puntu berdez (berdintasunez) mundu berdea bilakatu)

- Helburua guztiok egitea da, guztion artean. Hau da, denak pasatzea mundu grisetik mundu berdera.
- Ez du inportik zein lehenago edo zein beranduago. Jolasean ez dago lehiakortasunik, jolaskidetzeta baizik. Guztiek behar dute besteen laguntza jolasaren helburua lortzeko. Horretarako, jokaldi bakoitzean eginbeharrak banatu eta aldatu egiten dira.
- Jolasak ez du indarra, azkartasuna, saltatzea... eskatzen. Jolasteko behar dena, bereziki, berdintasunez jolastuz, elkarren arteko koordinazioa eta lankidetzeta dira, malgutasuna eta umorea, elkar heldu eta elkar lagundu, elkarri hitz egin eta ados jarri, pazientzia eta elkar onartzea, eta antzeko elkarbizitzarako trebeziak.

Bi talde egingo dira eta talde bakoitzak bere esparrua eta bere funtzioa izango ditu jolasaldi bakoitzean. Funtzio hauek zozketatu egingo dira lehendabiziko jolasaldirako eta gero txandatu bigarren jolasaldian:

- Talde batek, A taldeak esaterako, NAHIKO TWISTERREAN mugitu eta aurrera egin beharko du.
- Beste taldeak, B taldeak esaterako, frogak gainditu beharko ditu besteak Nahiko Twisterrean aurrera egin ahal dezaten.
- A taldekoak mundu grisetik → mundu berdera pasatzen direnean, berriro jolastuko da, taldeen egin beharrak aldatuz: A taldeak frogak egingo ditu eta B taldeak mugitu eta aurrera egingo du Nahiko Twisterrean.

Nahiko Twisterraren esparruko jolasean mugitu eta aurrera egiteko, jokalariek oinetakoak kendu beharko dituzte eta hanka hutsik jolastu.

- Jolasten hasi aurretik, gehienez lau/bost senideko familiak (taldeak) egingo dituzte. Familia hauek beti eskutik helduta joan beharko dute, katea osatuz.
- Jolasaldiaren hasieran, denak (familia guztiak) mundu grisaren barruan kokatuko dira. Horretarako behar den moduan antolatu eta espazioa banatuz.
- Jolasaren helburua, denok (familia guztiak) mundu berdera iristea eta bertan sartzea da. Beti

ere, familia bakoitzaren katea hautsi gabe. Mundu batetik bestera joateko, puntu berdeen gainetik (puntu berdeak eginez) joan behar da.

- Bi munduen arteko puntu berde horiek zenbaki bana edukiko dute: 1etik 6ra, azken bi ikasturteetan landutako sei unitate didaktikoen adierazgarri. Hauetako unitate bakoitzari (puntu berdeen zenbaki bakoitzari) froga ezberdin bat dagokio.

Jolasaren dinamika:

- Mundu grisean dauden A taldeko familiak prest daudenean, B taldeko neska-mutilak dado erraldoia jaurtiko dute. Lortutako zenbakiari (unitate didaktikoari) dagokion froga planteatuko die begiraleak.
- Gainditzen badute, dadoaren zenbakia duen puntu berdera mugitu beharko da lehendabiziko familiako kide bat. Eta kide horri, unitate didaktiko horren elementu bat emango zaio, hortik aurrera bide horrekin egin beharko duelarik (jantzia, kapela, panpina, lanabesa, eta abar).
- Dadoa berriro jaurti eta, B taldekoak asmatzen duten bitartean edota familia kideak katea apurtu gabe aurrera egin dezaketen bitartean, familia horrek jarraituko du jolasean.
- B taldeak ez badu froga gainditzen edota lehen familia horren kideek ezin badute tokatu den puntu berdera mugitu, euren txanda bukatu eta beste familia baten txanda izango da.
- Familia guztiak egiten duten neurrian, euren kateak Twisterrean nahasten eta korapilatzen joango dira, familiakideak gero eta elementu gehiago eramango beharko dituzte eta zailago eta dibertigarriago izango da jolasa.
- Munduen arteko puntu berde bakoitzean familia bereko senide bat baino gehiago egon daiteke edota familia ezberdineko pertsonak batera ere egon daitezke bertan, baina beti berdintasunean (ez bata bestearen gainean, ez bata bestearen lepora biziz).

Familien kateak aurrera egiteko, atzetik aurrera mugitu beharko dira.

- 1-2-3-4 familiako 4 kideak → O puntura mugitu nahi badu, maiz ezingo du zuzenean joan horrela:
4 → O: 1-2-3-... ..-4-O, katea apurtu egingo delako.
- Halakoetan atzetik aurrera mugitu behar dira, horrela:
1 → 2 (bata biaren puntura): 12-3-4
2 → 3 (bia hiruaren puntura): 1-23-4
3 → 4 (hirua lauaren puntura): 1-2-34
4 → O (laura joan nahi duen puntura): 1-2-3-4



Begirale bakoitzak A eta B taldearen dinamika eramango du, bien artean talde bien eginbeharrak lotuz jolasa arin joan dadin.

Frogak egiteko txartelak, eskoletan dituzten 6UD materialeko berberak dira (formato handiagoan inprimatuta). Beraz, gehienetan, frogak ezagutuko dituzte eta, normalean, azkar joango da jolasa.

<p>3</p> <p>1.UD ZAINKETA CUIDADO UD-1</p>	<p>Lau elikagai talde edo mota ezberdin esan itzazue. (Barazkiak, fruta, pasta, zerealak, esnekiak, haragia, arraia, gozoak...)</p> <p>Decid cuatro grupos o tipos de alimentos diferentes. (Verdura, fruta, pan, pastas, cereales, lácteos, carne, pescado, dulces...)</p>	<p>Egunero bazkaltzeko bete behar diren lau pausu esan itzazue. (Menua aukeratu, erosketak egin, elikagaiak garbitu, sukaldatu, mahaia jarri, jaso, garbitu...)</p> <p>Decid cuatro pasos para comer cada día. (Elegir menú, comprar, limpiar los alimentos, cocinarlos, preparar la mesa, recoger, fregar...)</p>	<p>Etxeko otorduetaz arduratu daitezkeen lau pertsona esan itzazue. (Aita, ama, semea, alaba, aitona, amona, sukaldaria, izeba, osaba...)</p> <p>Decid cuatro personas que puedan responsabilizarse de la comida en una casa. (Padre, madre, hijo, hija, abuelo, abuela, cocinera, cocinero, tía, tío...)</p>	<p>21</p> <p>2.UD ANIZTASUNA DIVERSIDAD UD-2</p>	<p>Mutil batzuek panpinekin jolastea gustukoa dute.</p> <p>A algunos niños les gusta jugar con muñecas y muñecos.</p> <p>EGIA-VERDADERO</p> <p>Zainketa panpinekin jolastuz ikas daiteke.</p> <p>El cuidado se puede aprender jugando con muñecas.</p> <p>EGIA-VERDADERO</p>	<p>Neska guztiek panpinekin jolastea gustukoa dute.</p> <p>A todas las niñas les gusta jugar con muñecas.</p> <p>GEZURRA-FALSO</p> <p>Mutil askori ez diete panpinekin jolasten uzten.</p> <p>A muchos chicos no les dejan jugar con muñecas.</p> <p>EGIA-VERDADERO</p>	<p>Neska gehienei panpinak oparitzen dizkiete.</p> <p>A casi todas las chicas les regalan muñecas.</p> <p>EGIA-VERDADERO</p> <p>Panpinekin jolasten duten mutilak "arraroak" dira.</p> <p>Los chicos que juegan con muñecas son "raros".</p> <p>GEZURRA-FALSO</p>
<p>5</p> <p>3.UD BERDINTASUNA. GIZA ESKUBIDEAK IGUALDAD. DERECHOS HUMANOS UD-3</p>	<p>Haginlaria da eta bakarrik bizi da.</p> <p>Es dentista y vive solo.</p> <p>Amaren etxea garbitzen du.</p> <p>El limpia la casa de su madre.</p>	<p>Mekanikaria da eta bere emaztearekin eta bere bi alabekin bizi da.</p> <p>Es mecánico y vive con su mujer y sus dos hijas.</p> <p>Etxeko bainugela garbitzen du.</p> <p>El limpia el baño de la casa.</p>	<p>Merkataria da eta bere semearekin bizi da.</p> <p>Es comerciante y vive solo con su hijo.</p> <p>Etxeko garbiketaz arduratzen da.</p> <p>El se ocupa de la limpieza de la casa.</p>	<p>2</p> <p>4.UD LANBIDEAK OFICIOS UD-4</p>	<p>ORKESTRA ZUZENDARIA</p> <p>zuzendu musika</p> <p>dirigir música</p> <p>DIRECTORA/DIRECTOR DE ORQUESTA</p>	<p>PAILAZOA</p> <p>zirkua sudur gorria</p> <p>circo nariz roja</p> <p>PAYASA PAYASO</p>	<p>ILEAPAINTZAILEA</p> <p>guraizak moztu</p> <p>tijera cortar</p> <p>PELUQUERA PELUQUERO</p>
<p>10</p> <p>5.UD KOMUNIKAZIOA MEDIOS DE COMUNICACION UD-5</p>	<p>Albiste berdea ala grisa? Billy Elliot-ek ballet eskola ireki du bere herrian bertako mutilentzat.</p> <p>¿Noticia verde o noticia gris? Billy Elliot ha abierto una escuela de ballet para chicos en su pueblo natal.</p> <p>BERDEA-VERDE</p>	<p>Albiste berdea ala grisa? Aurtengo pelikuletan emakume asko protagonista dira.</p> <p>¿Noticia verde o noticia gris? En las películas de este año hay muchas mujeres protagonistas.</p> <p>BERDEA-VERDE</p>	<p>Albiste berdea ala grisa? Oskarretan zuzendari hoberen izendatutakoan artean ez dago emakumerik.</p> <p>¿Noticia verde o noticia gris? No hay ninguna mujer entre las nominaciones al Oscar a la mejor dirección.</p> <p>GRISA-GRIS</p>	<p>4</p> <p>6.UD ELKARBIZITZA CONVIVENCIA UD-6</p>	<p>Klub edo kirol-talde bateko ereserki bat kanta ezazue.</p> <p>Cantad el himno de un equipo o club deportivo.</p>	<p>Kantatuz eta txalotuz, kirolari edota kirol-talde bat animatzeko esaldi bat esan ezazue.</p> <p>Cantad dando palmas una frase de ánimo deportivo a un equipo, deportista, deporte...</p>	<p>Olatua egin, bi norabideetan, zareten pertsona kopuru bezain beste aldiriz.</p> <p>Haced la ola, en ambas direcciones, tantas veces como personas seáis en el grupo.</p>

3. ZATIA (DENOK ELKARREKIN): ONDORIOAK (15-20 m.)

Atsegina izan dira jolasak? Ondo pasa dute? Gustora egon dira?
Zer izan da errezena, politena, dibertigarriena? Zergatik? Eta zailena, itsusia, aspergarriena? Zergatik? Mutilentzat ere bai? Neskentzat ere bai? Erantzun ezberdinak badaude, zergatik?

Zeri ematen diote garrantzi gehiago? Zeintzuk? Zergatik? Zer komentario egon dira?
Zerbaitek lotsa eman die? Nori? Neskei? Mutilei? Zerk? Zergatik? Nesken eta mutilek berdin jolastu dugu? Froga guztiak egin ditugu? Ez? Frogak berdinak egin ditugu? Zergatik batzuk bai eta beste batzuk ez?

Jolasak ondo adierazten du elkarbizitza? Zertan bai eta zertan ez?
Erreza da elkarbizitza? Zergatik? Zer zailtasunak daude orokorrean? Eta neska eta mutilen arteko elkarbizitzan?
Zer izan da zailena jolaskidetzan? Zer da zailena bizikidetzan? Zer behar da neska eta mutilak aukera berdinak izateko, berdintasunez elkarrekin bizi ahal izateko?

--